

BORTZIRIETAKO NERABEEN EUSKARA ERABILERA 12-16 URTE BITARTEAN

Eneritz Rekarte Bengoetxea

2015 Uztaila

Hizkuntza plangintza graduondoa

Laburpena

Ikerketa soziolinguistiko bat dugu hau, Bortzirietako gazteetan zentratua, batik bat. Gaztetxoen egunerokotasunean euskararen presentzia zein den ezagutu nahi dut, aurrez-aurreko harremanetan zein sare sozialetan. Horretarako, metodologia kuantitatiboa erabili dut, inkesten bidez hain zuzen ere, Bortzirietako gaztetxo gehiengoarengana hurbiltzeko aukera eman baitit.

Summary

This is a sociolinguistic survey, which is mainly focus on teenagers from Bortziriak. The aim is to know the use teenagers make of Basque language in their daily life, in face to face relations and in the social media. To achieve this purpose, I have use the quantitative methodology, based on surveys that gave me more opportunity to endear the teenagers.

AURKIBDEA

0. Justifikazioa.....	4.orr.	
1. Sarrera.....	4.orr.	
Alde teorikoa:		
2. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa	5.orr.	
3. Nafarroako egoera soziolinguistikoa	5.orr.	
3.1. Eremu euskalduna 8.orr.		
4. Bortziriak.....	10.orr.	
5. Aldagaiak	15.orr.	
5.1. Sexu/generoa		15.orr.
5.2. Adina		16.orr.
6. Euskararen erabileran eragina duten faktoreak	17.orr.	
7. Euskararekiko jarrerak	19.orr.	
8. Haurtzarotik nerabezarora	20.orr.	
9. Euskararen atzerakadarekin zerikusia duten faktoreak	20.orr.	
10. Hezkuntza	20.orr.	
10.1. Haur Hezkuntza		21.orr.
10.2. Lehen Hezkuntza		21.orr.
10.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza		22.orr.
10.4. Unibertsitatea		24.orr.
11. Sare sozialak eta nerabeak	27.orr.	
12. Helburuak	28.orr.	
13. Metodologia	28.orr.	
14. Datuen interpretazioa.....	29.orr.	
15. Ondorioak	38.orr.	
16. Bibliografia	39.orr.	

0. Justifikazioa

Nire azterketa Bortzirietako gazteen euskararen erabileraren ingurukoa izango da. Onartu behar dut interes pertsonal hagitz handia dagoela lan honen atzetik eta unibertsitateak eman didan aukerarengatik, interes pertsonal hori ikerketa bihurtzera ailegatu dela. Ikusgarria da Nafarroan bizi den egoera soziolinguistiko aberasgarria, lurralde mugatu batean hiru egoera oso ezberdin aurkitu ahal ditugulako (eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu erdalduna). Miquel Gros i LLadós-ek ere egoera soziolinguistiko aberasgarri honen berri badu zer errana:

“En la introducción del presente estudio se enfatizaba en la singularidad de Navarra desde el punto de vista lingüístico. En un territorio no muy extenso se dan todas las combinaciones sociolingüísticas posibles, desde zonas plenamente euskaldunes a otras donde el euskera no parece haber formado nunca parte de su patrimonio cultural” (Miquel Gros i LLadós, 2007)¹

Ezinezkoa zait Nafarroa osora nire ikerketa zabaltzea, hortaz nire ikerketa esparrua mugatzera behartua ikusi dut neure burua, eremu euskaldunean zentratu eta Bortzirietako eskualdea izan da nire aukera. Bertan proposena gazteekin lan egitea izango litzatekela pentsatu dut, azken batean gazteak dira etorkizuna, beraz, euskararen etorkizuna ere gazteen esku geratuko da. Kike Amonarrizek hagitz ongi adierazten duen bezala:

“Gaur egungo gazteen erabilerak markatuko du(elako) euskararen beraren etorkizuna. Une honetan euskararen eguneroko erabileraz hitz egiten dugunean, eta etorkizunaz ari garenean daukagunari begiratu behar diogu. (Kike Amonarriz, 2002)²

1. Sarrera

Aurrean dugun ikerketa soziolinguistiko honetan, lehenengo Euskal Herriko eta Nafarroako egoera soziolinguistikoa zein den ezagutuko dugu. Poliki-poliki gure ikerketa eremura hurbilduz joango gara, Nafarroako eremu euskalduneko eta Bortzirietako errealitatea ezagutuz. Bertan hainbat estatistika ikusteko aukera izango dugu eta ikerketa honek beteko duen hutsunea ezagutu.

Gaiarekin jarraituz, orain arte egin diren ikerketak aztertuko ditugu, batez ere euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko faktoreak zein diren aztertuz. Jarraian euskararen

¹GROS I LLADÓS, Miquel (2007). *Recuperación del euskera en Navarra*. Bilbao. 215. orrialdea.

² AMONARRIZ, Kike (2002) *Euskara zuzenena erabiltzeagatik, batere komunikatiboa ez den hizkera bat erabiltzen da”* in *BAT Aldizkaria*. 42.zenbakia. 121.orrialdea.

erabileran hezkuntzak duen pisua ikusiko dugu, hezkuntza eredu ezberdinetan oinarrituz.

Kontuan hartuz gazteek euskararen inguruan duten pertzepzio, jarrera eta irudikariak zein diren ezagutu nahi ditugula, analisi hau aurrera eramateko metodologia kualitatiboa erabili dut. Erabilitako teknika sakoneko elkarrizketak izan dira, hala nola, hainbat gazte izan dira elkarrizketatuak. Elkarrizketa hauen ondorioz, ikerketa hasieran jarritako helburuak betetzea posible izan da.

2.Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa

Gure ikerketa eremura ailegatu baino lehen garrantzitsua da Euskal Herrian bizi den egoera soziolinguistikoa aztertzea. Euskal Herria bere osotasunean hartuz gero, euskararen kale erabilera %13.3koa da, gaztelera eta frantsesa %83.1ekoa eta bertze hizkuntzak %3.7koa (BAT aldizkaria 2012, 23.orrria). Datuek erakusten digute oraindik euskararen normalizazioa lortzeko lan handia egin behar dela. Hizkuntza handiek, kasu honetan gaztelaniak eta frantsesak, euskarak baino pisu handiagoa dute. Egia da datu hauek nahiko orokorrak direla eta probintzia bakoitzeko errealitatea hagitik ezberdina dela bertzeengandik. Horregatik, hurrengo taularen bitartez probintzia bakoitzeko errealitatera hurbiltzen saiatuko gara.

1. Taula: Euskal Herriko euskararen kale erabilera adin taldeen arabera ehunekoetan, 2011. urtea.

	Araban	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Iparralde
<i>Haurrak</i>	6.5	13.7	48.9	7.5	9.6
<i>Gazteak</i>	5.7	8.6	36.9	5.6	6.7
<i>Helduak</i>	3.5	8	28.8	5.4	5.5
<i>adinekoak</i>	1.2	8.3	22.4	3.3	4.8


Iturria: soziolinguistika klusterra; hizkuntzen kale erabileraren VI. Neurketa, 2011.

Bortz probintziak kontuan harturik, adin talde guztietan Gipuzkoa nagusitzen da euskara erabilera gehienarekin. Hortik ondorioztatzen ahal dugu probintzia guztien artean Gipuzkoan dagoela euskara erabilerarik altuena. Erabilerarik baxuena ordea, Arabako probintzian aurki dezakegu, adin talde guztietan gainera. Probintziei begira, erran genezake euskara erabilera gehien duen probintzia Gipuzkoa dela, jarraian Bizkaia, ondotik Iparralde, gero Nafarroa eta azkenik Araba.

Hala ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala hagitik ezberdina da Nafarroan zehar euskarak bizi duen egoera.

3.Nafarroako egoera soziolinguistikoa

Nafarroan hiru eremu geolinguistiko ezberdintzen dira: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Eremu euskalduna iparraldean dago, mistoa erdialdean eta ez euskalduna ordea, hegoaldean. Hurrengo argazkiaren laguntzaz ulertzea errazagoa izango da.




Iturria: http://eu.wikipedia.org/wiki/Fitxategi:Navarra_-_Zonificacion_linguistica.svg

Aurrerago joan baino lehen Nafarroako datu estatistiko batzuk azpimarratzea garrantzitsua da Nafarroako egoera zein den argitzeko. Hala nola, Nafarroan 640.322 pertsona bizi direla, %54.3 eremu mistoan, %36.3 eremu ez euskaldunean eta %9.3 eremu euskaldunean.³ Beraz, biztanleriaren gehiengoa Iruñaren inguruan bizi da, hau da eremu mistoan. Gero eremu ez-euskaldunean eta Nafarroako biztanleriaren gutxiengoa eremu euskaldunean bizi da.

³ INE eta Nafarroako Estatistika Institututik ateratako datuak


1. Grafikoa: Euskararen kale-erabileraren bilakaera Nafarroan ehunekotan, 1989-2011.



Iturria: 1989,1993,1997,2001,2006 eta 2011ko hizkuntzen kale erabilera datuak. (egileak: siadeco 1989; EKB 1993 eta 1997; SEI 2001; soziolinguistika klusterra 2006 eta 2011)

Datuek nahiko joera negatiboa erakusten digute, nahiz eta 1989.urtetik 1993. Urtera hobekuntza bat eman zen, denboraren poderioz euskararen kale-erabilerak behera egin du, nabarmen gainera. Daturik baxuena 2011.urtekoa dugu, %6ra e baita ailegutzen ere. Epe honetako daturik altuena, aldiz, 1993.urtearen ingurukoa dugu, %7.5rekin. Nafarroa osoaz hitz egiten ari gara, eremuz eremu aztertuz gero, seguruenik emaitza ezberdinak izango ditugu.

1. Grafikoa: Euskararen erabilera eremuaren arabera datu absolutuetan, 2011ko datuak:



Iturria: V. Inkesta soziolinguistikoa, 2011.

Antzeman dezakegun bezala eremu ez euskaldunean euskararen presentzia hagitx txikia da. euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen kopurua ia ikusezina da eta euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak ere nahiko gutxi. Ondorioztatzen ahal dugu, eremu ez euskaldunean euskarak ez duela ia indarrik, pertsona gutxi batzuek soilik erabiltzen dutela. Eremu mistoan presentzia nabaria da, nahiz eta erdarak indar gehiago duen, hau da, euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen kopurua handiagoa da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutena baino. Azkenik, eremu euskaldunean nabarmen indartzen da euskara, anitzez gehiago baitira euskara erdaraz beste edo gehiago erabiltzen dutenak euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak baino.

Ikus dezakegun bezala, eremuak linguistikoki daude sailkatuta, eremu mistoan euskara eta erdara daude indarturik, eremu euskaldunean euskara batez ere, eta azkenik, eremu ez euskaldunean erdara.

3.1.Eremu euskalduna

Gure eremura hurbilduz, eremu euskaldunean %59.3 elebidunak dira, %28.1 erdalunak eta % 12.6a elebidun hartzailea. (Iturria: inkesta soziolinguistikoa, 2011)

Lehenago aipatu dugun bezala, eremu euskaldunean zentratuko gara batik bat, ikasitako lehen hizkuntzari begira, hau da, etxean jaso duten hizkuntza: %43.6k erdara

du lehen hizkuntza, %47.1ek euskara eta %9.3k euskara eta erdara. ⁴ Beraz, nahiko parekaturik dago etxean erdara edo euskara jaso duten pertsonen kopurua.

II.Taula: Eremu euskaldunean euskara ulertzen duten pertsonen ehunekoa, 1986-2001

	1986	1991	1996	2001
<i>Euskaraz dakitenak</i>	71.3	75.2	76.2	77.5
<i>Leitzaran-Urumealdea</i>	93.7	96.3	95.8	96.0
<i>Malerreka</i>	92.7	94.4	93.9	91.7
<i>Baztanaldea</i>	85.4	91.1	89.0	91.7
<i>Bortziriak</i>	84.5	89.0	89.6	91.5
<i>Mendebaldeko ibarrak</i>	91.2	92.1	90.7	89.8
<i>Aranatzaldea</i>	92.8	89.0	90.2	88.9
<i>Erdialdeko Ibarak</i>	58.7	65.2	62.0	61.5
<i>Burunda</i>	29.8	35.7	42.4	50.0
<i>Arakil Ibarra</i>	29.6	35.00	38.8	39.7

Iturria: Recuperación del Euskera en Navarra. Miquel Gros i Lladós.2007.Bilbao (66-67.orrialdeal)

Orokorrean prozesu positibo bat izaten ari dela ematen du, geroz eta jende gehiagok ulertzen baitu euskara eremu euskaldunean. Datu guztiek gora egiten dute Aranatzaldea kenduta, hemen beherakada txiki bat nabari da. Malerrekan ere gorabehera txiki batzuk nabari dira, nahiz eta 1991. urtean gora egin, berriro ere 2001. urtean behera egiten du.

Euskaraz gehien ulertzen dutenetik gutxienerako ordena hurrengoa da: Leitzaran-Urumealdea, Malerreka eta Baztanaldea, Bortziriak, Mendebaldeko ibarrak, Aranatzaldea, Burunda eta azkenik, Arakil Ibarra.

⁴ V. Inkesta soziolinguistikoa,2011.

III.Taula: Eremu euskaldunean euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, 1989-2001.

	1986	1991	1996	2001
<i>Euskaraz egiten dutenak</i>	61.7	63.5	63.0	64.5
<i>Leitzara-Urumealdea</i>	90.4	93.1	91.1	92.8
<i>Malerreka</i>	86.4	87.0	86.5	86.4
<i>Baztanaldea</i>	74.7	79.9	77.6	82.4
<i>Bortziriak</i>	76.3	80.2	80.6	81.5
<i>Mendebaldeko Ibarrek</i>	79.4	81.9	76.1	80.3
<i>Aranatzaldea</i>	81.1	78.6	78.6	77.9
<i>Erdialdeko Ibarrek</i>	40.3	35.5	37.7	37.9
<i>Burunda</i>	19.5	19.7	22.0	27.0
<i>Arakil Ibarra</i>	20.9	22.3	21.6	22.4

Iturria: Recuperación del Euskera en Navarra. Miquel Gros i Lladós.2007.Bilbao (66-67.orrialdeal)

Erabilera aztertzen badugu, antzematen da pertsona gehiagok ulertzen duela euskaraz, euskaraz egiten dutenak baino. Urtez urte, orokorrean erabilerak gora egin du Aranatzaldea eta Erdialdeko Ibarrek salbu. Beraz, nahiko datu positiboak ditugu aurren ditugun hauek.


Aurreko kasuan bezala, euskarararen erabilerarik altuena Leitzara-Urumealdean dago, jarrain Malerreka, Baztanaldea, Bortziriak... Eta gutxien erabiltzen den euskualdeak Burunda eta Arakil Ibarra dira.

4.Bortziriak

Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzak osatzen dute Bortziriak. Bidasoaren alde batetik Bera eta Etxalar daude eta bertze aldean Lesaka, Arantza eta Igantzi ditugu. Toki estrategiko batean dagoela erran genezake, bi muga garrantzitsuren artean dagoela. Bera eta Etxalarrek muga egiten dute Iparralderekin, eta Lesaka eta Berak aldi berean Gipuzkoarekin. Urteetan zehar harreman handia egon da bi mugakideekin. Hala ere, ezin dugu erran egun harreman horrek hain biziki dirauenik (Edu Zelaieta, 2009). Ezaugarri hauek kontuan hartuz hizkuntzarekiko eragin zuzena duela pentsa dezakegu.

Nolabait Bortziriak herri euskaldunaz inguratuta bizi izan da eta honek bere iraunkortasunean lagundu du (Edu Zelaieta, 2009).

Beraz, argi dago Bortzirietan mugak izan duen garrantzia, hiru mugakide nagusi baititu: Gizpukoa, Lapurdi eta Nafarroa. Azaldukoak hobeki ulertzeko irudi honetaz baliatuko gara:



IV.Taula: Bortzirietan euskaraz ulertzen duten pertsonen ehunekoa, 1986-2001

	1986	1991	1996	2001
<i>Bortziriak</i>	84.5	89.0	89.6	91.5
<i>Arantza</i>	96.7	100	99.6	99.8
<i>Igantzi</i>	95.5	96.1	96.4	97.1
<i>Etxalar</i>	94.1	95.6	95.3	96.5
<i>Lesaka</i>	86.9	90.6	90.8	93.2
<i>Bera</i>	75.9	82.6	84.0	86.5

Iturria: Recuperación del Euskera en Navarra.Miquel Gros i LLados.2007. Bilbao. 42.orria

Herri guztietan euskaraz ulertzen duten pertsonen ehunekoak argi eta garbi gora egin du. Ikusgarria da 1991.urtean Arantzaren %100ak euskaraz ulertzea, herri guztiak

ulertzen baitzuen euskaraz. Datuen arabera, Arantzan aurki dezakegu euskaraz ulertzen duen pertsonen ehunekorik altuena, eta txikiena ordea, Beran. Azkenengo datuen arabera, herri guztiek gaintitzen dute %90a Berako herriak izan ezik. Hala ere, Berak pairatu du igoerarik handiena, 11 puntu 1986.urtetik 2001.urtera eta hau ere baloratzekoa da.

V.Taula: Bortzirietan euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, 1986-2001.

	1986	1991	1996	2001
<i>Bortziriak</i>	74.7	79.9	77.6	82.4
<i>Arantza</i>	95.7	99.3	99.0	98.8
<i>Igantzi</i>	90.00	90.4	90.0	92.4
<i>Etxalar</i>	93.3	95.1	92.5	91.9
<i>Lesaka</i>	74.6	80.1	78.9	83.3
<i>Bera</i>	63.5	70.5	66.7	72.8

Iturria: Recuperación del Euskera en Navarra.Miquel Gros i LLados.2007. Bilbao. 42.orria

Euskararen erabilerak azken urteetan gora egin du Bortzirietan, nahiz eta badirudien Etxalarren pixka bat bera egin duela. Hala ere, datu nahiko altuak ditugula erran genezake, Bera kenduta gainontzeko herriek %80a gaintitzen baitute.

VI.Taula: Bortziritako 2011ko kale erabileraren datuak ehunekotan:

1994	1995	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2010	2011
61	66	69	62	63	60	59	68	66	61

Iturria: Kale erabileraren neurketa Bortziriak 2011, Bortzirietako euskara mankomunitatea.

Ez da apenas gorabehera handirik sumatzen urte batetik bestera. Daturik altuena 1997. urtean jasotakoa da eta baxuena berriz, 2006. urtean. %60tik gora mantendu izan da urtero, eta bilakaeran hori da adierazi dezakeguna, hau da, euskara erabilera mantendu egin dela azken urteetan. Ez baita goraldi handirik ez eta beherakada handirik antzeman urte hauetan. Hauek Bortziri osoko bat az bestekoak ditugu, baina herriz herri errealtateak ezberdinak direla ikusiko dugu:

VII.Taula: Bortziritako 2011ko kale erabileraren datuak ehunekotan herriz herri.

Herria	%
Arantza	85.4
Bera	43.9
Etxalar	50.3
Igantzi	81.3
Lesaka	65.7
Bortziriak	60.5

Iturria: Kale erabileraren neurketa Bortziriak 2011, Bortzirietako euskara mankomunitatea.

Kontuan hartzen badugu Bortzirietako bataz bestekoa, %60.5ekoa dela ikus dezakegu, horrela bada, 10 pertsonetatik 6 euskaraz ari ziren kalean. Hala ere, alde handiak daude herri batetik bertzera, hala nola, Arantzarik Berara. Arantzako bataz bertzekoa %85.4koa den bitartean, Berakoa %43.9koa da. Bataz bertzekoaren azpitik Etxalar eta Bera ageri dira, gainontzekoek %60a gainditzen dute. Bera da herririk handiena eta bertan bizi dira etorkin gehien, badirudi honek eragina duela kale erabileran. Arantza eta Igantzi bezalako herriak berriz, txikiak dira eta ia ez dute kanpoko etorkinik bertan bizitzen.

Hala ere, garrantzitsua da jakitea adin tarte bakoitzaren erabilera zein den, eta horretarako hurrengo taula daukagu:

VIII.Taula: Bortziritako euskararen erabilera ehunekotan adin taldeetan.

haurrak	gazteak	helduak	adinekoak
78.7	76.4	45.5	44.0

Iturria: Kale erabileraren neurketa Bortziriak 2011, Bortziritako euskara mankomunitatea.

Ikusten denez, adinekoek eta helduek egiten dute gutxien euskaraz, aldiz haurrak eta gazteak indar gehiagorekin datoz alde horretatik. Heldu eta adinekoen erabilera gutxi gora behera %45ekoa da eta gazte eta haurrenak %75a gaintitzen du. Nahiko alde handia dago bi adin tarte hauen artean. Gazteak gure interes gune izanik, garrantzitsua da jakitea ze nolako bilakaera izan duten azken urte hauetan.

IX.Taula: Bortziritako gazteen euskara kale erabilera 1994-2011, ehunekotan.

1994	1995	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2010	2011
47	60	62	57	60	67	81	76	84	76

Iturria: Kale erabileraren neurketa Bortziriak 2011, Bortziritako euskara mankomunitatea.

Begirada bat ematen baldin badiogu taulari, ikus dezakegu nola euskarazko kale erabilerak gazteengan gora egin duen. Daturik txikiena 1994.urtekoa dugu, %47arekin eta daturik altuena ordea, 2010ekoa %84arekin. 2006.urteetik aurrera %70a gaintitu izan da, beraz gorakada hau nabaria da eta mantentzea espero da.

Honekin batera, badugu bertze aldagai bat gure interesekoa dena, eta hori sexu/generoa da. Hurrengo taulan honi buruz hitz egingo dugu.

X.Taula: Bortziritako euskararen erabilera sexu/generoaren arabera ehunekoetan, 2011.

urtea	emakumezkoak	gizonezkoak
<i>2006</i>	56.1	63.4
<i>2008</i>	68.2	68.8
<i>2010</i>	61.5	76.9
<i>2011</i>	59.1	62.1

Iturria: Kale erabileraren neurketa Bortziriak 2011, Bortziritako euskara mankomunitatea.

Badirudi gizonzkoen artean joera handiagoa dagoela euskaraz aritzeko emakumezkoen artean baino. Gazteen artean espreski horrela den ikustea interesgarria da eta hortan zentratuko gara ikerketa honen atal batean; saiatuko gara ikusten emakume eta gizonen artean euskararen erabilerari begira alderik ba ote dagoen.

5.Aldagaiak

Euskararen erabileran izan daitezkeen ezberdintasunak ikusteko bi aldagaiekin batez ere egingo dugu lan: sexua eta adina. Erran bezala, ikerketa honetan sexu/genero ezberdinetako gazteek parte hartuko dute, eta hauen inguruan garatu diren teoriak eta ikerketak ezagutzea garrantzitsua da.

5.1.Sexu/generoa

Teoria batzuen ustetan gizonzkoek emakumezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz eta bertze batzuen erranetan, ordea, alderantziz. Atal honetan honen inguruan arituko gara eta aurrerago Bortzirietako gazteen egoera zein den aztertuko dugu.

Gure hizkuntzari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzera euskararen kasuan emakumezkoek bete duten papera. Urteetan zehar, gizonak etxetik kanpo lan egin duten bitartean (arlotz publikoa) emakumezkoak arlotz pribatura mugaturik ikusi izan dira. Hortaz etxean, hizkuntzaren transmisioa emakumeen esku geratu izan da. Hau da, emakumeak euskararen gordetzailerak izan dira, eta gizonzkoak, aldiz, erdararen bideretzailerak. Gizonzkoak etxetik kanpoko eremuarekin harreman gehiago izan duten heinean, erdara erabiltzeko eta zabaltzeko aukera gehiago izan dute. (Xabier Erize Etxegarai, 1997)

Idea berarekin lotuta, Campionen erranetan lehen artzain moduan (gizonzkoak) lan egitera joaten ziren Nafarrak Erriberara (eremu erdaldua) eta bertan egonaldi luze bat egoten zirenez, gaztelera errotzen zitzairen. Emakumeak ordea, eremu euskaldunagotan mugitu ohi ziren, Iparraldera zein Gipuzkoa aldera. Honek eragina zuen hizkuntzaren hautaketan. Caro Barojak ideia bera defendatzen zuen, gizonengan egonaldi luze horiek eragina zuela ziurtatuz.

Orreaga Ibarrek aldiz, ezberdinketa bat egiten du herriko emakume eta hiriko emakumeen artean. Herri txikietan emakumeek jarrera kontserbadoreagoa azaltzen dutela dio, ohiturenganako sentimendua handiagoa eta beraz, euskara mantentzeko gogo biziagoa. Beraien egunerokotasuna euskara hutsean egiten zuten, bai etxe barruan baita kalean ere. Hirietan ordea, berrikuntzen alde jotzen zuten, hala nola, gure kasuan gaztelania, frantsesa eta baita ingelesaren aldeko apustua ere. Hizkuntza gehiago zekitelako erakutsi beharra sentitzen zuten hiriko emakume hauek, euskara herrietako eta baserrietako giroarekin lotzen zuten. Horrela, euskarak konnotazio negatiboa irabazten zuten hirietako emakumeen begietan.

Orain bertze aldera joko dugu, hau da, gizonzkoek emakumezkoek baino gehiago erabiltzen dutela euskaraz, edo euskara gehiago gordetzen saiatu direla dioten ikerketa zein teoriak.

Xabier Erizen hitzen arabera: *“Azalpen bila, ukaezina da hizkuntzaren transmisioan emakumeek, duten betekizuna, haurren lehendabiziko urteetan batez ere, eta garbi dago amaren jokamolde ugari zuzenean islatuko direla umeei barneratzen dituzten hizkuntza ereduak. Horrexegatik ematen zaio hain garrantzi handia sexu-aldagaiari hizkuntzaren bilakaeraren azterketan. Haurren sozializazioan bi alor lantzen dira: jaioterriarekiko lotuta, komunitatearen barneko munduarekiko, alegia, eta kanpoko mundurako prestaketa. Bietako hizkuntza bera denean, hizkuntza normalizatu bateko komunitate batean, kasu, orduan ez dago arazo handirik. Komunitate euskaldunetan, berriz, desberdina zen egoera, barneko hizkuntza euskara, baina komunitatetik at ibiltzeko erdara zirelako. Barne munduari loturiko hizkuntza eta kanpo munduari loturikoa genituen, beraz, eta emakumeen esku zegoen haurren heziketak bieie erantzun behar zien. Batzuetan komunitatearen hizkuntzari ematen zitzaion lehentasuna eta beste batzuetan kanpokoari, ordea, eta hautaketa horretan faktore asko sartzen ziren jokoan. Adibidez, herriko hizkuntzaren bizitasuna, herriko bizimoduaren indar sozioekonomikoa, kolektibitatearen hizkuntza nahiak, emakumeen beraien estatusa, emakume eta gizonei eskaintzen zitzaizkien rolak.”* Xabier Erizek ongi azaltzen duen bezala, hizkuntzaren hautaketa faktore askoren menpe egon izan da, eta interesgarria da sexu/generoaren aldetik hau aztertzea. Hau da gure ikerketan ukituko dugun puntuetako bat, sexu/generoak ze nolako garrantzia duen hizkuntzaren hautaketan. Emakumeek paper garrantzitsua jokatu dute beraien seme-alaben hezkuntzan, batez ere hizkuntza transmititzerako garaian. Hala ere, ezberdinketa bat egiten du Xabier Erizek, alde batetik, komunitate barneko hizkuntza eta bertzea, komunitatetik kanpokoak. Hizkuntza bat normalizatu dagoenean eta bi eremuetan erabiltzen denean ez dago inongo arazorik, baina euskarak bertze errealitate bat bizi izan du. Komunitate barneko hizkuntza euskara izan da, baina hortik at gaztelania edo frantsesa erabili behar izan dute. Beraz, hor hezkuntzan emakumeek aukeratzen zuten zein zen seme-alabei erakutsi behar zitzaien hizkuntza, barne komunitatekoa edo kanpokoak.

Hainbat teoria ikusi eta gero, garrantzitsua da gure inguruan ze errealitate bizi dugun ezagutzea, Bortzirietan sexuak euskararen erabilera determinatzen ote duen jakitea.

5.2. Adina

Hizkuntzan adinaren azterketa bat eginez gero, jende helduaren ohiko jarrera kontserbadoreago azaltzea da eta gazteek ordea, azkarrago galtzen omen dute nazioaren jatorrizko hizkuntza (Jordi Solé I Camardons, 1995). Guri dagokigunez, gazteen jarrera da eta errandakoaren arabera gazteek jarrera aldakorragoak adierazi ohi dute.

Baieztapen honekin bat egiten du Txepetxek Malerrekan 1981. urtean egin zuen ikerketak. Ikerketa honetan adina kontuan hartzeaz gain, sexu/generoa ere aintzat hartu zuen. Ondorioen artean azpimarratzekoa da gaztetxoaren artean emakumeak gizonezkoak baino berritzaileagoak azaltzen direla, eta hortara, erdara gehiago erabiltzen dutela. Helduak egiten diren heinean, badirudi emakumeak kontsebardoreagoak bihurtzen direla, eta gizonezkoek baino gehiago gorde ohi dutela euskara. Beraz, sexuari

dagokionez, emakumezkoak orokorrean berritzailegoak azaldu ohi dira, baina adinari begiratzuz gero, zenbat eta helduagoak izan orduan eta kontserbadoreagoak izan ohi dira.

Hala ere, badago erraten duenik ere, gaztetxoenen artean, neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dutela. Badirudi neskek errazago eta zuzenago egiten dutela, gainera hizkuntzarekiko ardura adierazten dutela. Neskek euskararen arauak errespetatu eta ahalik eta zuzenen erabiltzen saiatzen dira, mutilek ordea, arau hauek puskatzen dituzte. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, ezberdintasun hauek murriztuz doaz. Jone Miren Hernandez-en ustetan, mutilei heldutasuna eta arduraren nozioa beranduago ailegatzen zaielako. (Jone Miren Hernandez, 2005, 101-102 orrialdeak)

Beraz, ikerketa guztiak ez datoz bat adinaren eta sexu/generoaren arteko ezberdintasunarekin, horregatik orokortu baino lehenago gure inguruan bizi dugun errealitatea zein den aztertzea garrantzitsua dela pentsatzen dut. Beraz, teoria hau oinarritzat harturik gure inguruan gertatzen dena aztertzen eta ulertzen saiatuko gara. Ikerketa honen bidez jakingo dugu adinak eta sexuak zerikurisik ba ote duten euskararen erabilerarekin.

6.Euskararen erabileran eragina duten faktoreak

Euskararen erabilerari dagokionez, gehien eragiten duten faktoreak hurrengoak dira: eremuaren euskaldun dentsitatea, euskaraz zein erdaraz mintzatzeko gaitasun erlatiboak eta euskararekiko adierazten diren jarrerak. (Urbe A. 2003)

Euskara erabiltzerako orduan, gazte anitzek sentitzen dute hutsuneak dituztela hainbat adierazpen egiterako orduan. Horrelakoetan, erdarara jotzeko joera handia dute, eta behin erdarara pasa direla gutxitan bueltatzen dira berriro ere euskaraz egitera. Adibidez, haserretzean gaztelaniazko espresioak erabili ohi dituzte, euskarazkoak ezezagunak dituztelako. Edota modan dauden hainbat esamolde, batez ere telebistatik hartutakoak, erdarazkoak izan ohi dira. Hortaz, adierazpenean hutsuneak dituztela sumatzen dute gazteek, horrelako kasuetan erdaraz egiten dute. (Jone Miren Hernandez, 2005)

Hizkuntzaren kontrola edota A. Urbek aipaturiko euskaraz mintzatzeko gaitasunak ere badu pisua euskaraz aritzeko motibatuzeko garaian. Orokorrean euskaraz ez da izatean gazteek lehenesten duten hizkuntzetako bat, ez baita gehien erabili ohi dute hizkuntza. Gazteek onartzen dute badutela hizkuntzarekiko kontrol falta, askotan ezagutza falta izan ohi da, hau da, hitz batzuk ezagutzen ez dituztenean. Beraz, segurtasun falta honen aurrean gaztelera aukeratu ohi dute beraien egunerokotasunean erabiltzeko. (Jone Miren Hernandez, 2005)

Uribek aipatutako hiru faktore horiekin bukatzeko, euskararekiko adierazten dituzten jarrerak ditugu. Euskal Herriko gazte gehienak euskararen alde azaltzen dira, baina pertsonalki onartzen dute ez dutela esfortzu gehiegirik egiten euskaraz aritzeko. Hala ere, hemen hainbat jarrera ezberdin daude, badira euskaraz aritzeko esfortzu ikaragarriak egiten dituztenak, baina hauek gutxiengo dira. Beraz, euskararekiko

jarrera aktiboa azaltzen dutenak saiatzen dira batez ere euskaraz aritzen, gainontzekoek aldeko jarrera azaldu ohi dute, baina esfortzu berezirik egin gabe. (Urbe A. 2003)

Horiek ez dira euskara erabiltzerako orduan eragina duten faktore bakarrak, horietaz gain, hainbat faktore ezberdin aztertu ditzazkegu jarraian ikusiko dugun bezala. Modak ere pisu handia du euskara erabiltzerako garaian, gazteen artean badirudi modan dagoela gaztelaniak. Euskal ikonoak ez daude modan, ez kirolariak, ez musikariak, ez antzezleak... ez eta telebista eta aldizkaririk hedatuena ere. Beraz egunerokotasuneko gaiak, edota modan dauden elementuak gaztelarazko munduarekin lotzen dute gazteek. (Jone Miren Hernandez, 2005)

Txepetxek ordea, hizkuntzaren erabilerari begira hiru faktore garrantzitsu azpimarratu zituen, lehenik motibazioa, bigarrenik ezagutza eta azkenik erabilera. Motibazioari dagokionez, haur garaian motibazio papera gurasoek batez ere betetzen dute, etxean euskaraz egitera bultzatzen dutenean. Behin 12 urteetara ailegatuta gurasoen papera hori ez da hain garrantzitsua eta motibazioa bertze toki batzuetatik jasotzen dute, eskola, lagunak, komunikabideak... Ezagutza etxean hasten da eta jarraian eskolan lantzen den faktorea dugu eta honek erlazio zuzena du hizkuntzaren normalizazioarekin. Eta azkenik erabilera, gazteetan zentratuz, hizkuntzaren erabilera esparru eta funtzio guztietara zabaltzean datza, beraien egunerokotasunaren parte normalizatua izatea. (Urbe A. 2003)

Hizkuntzaren erabilerarekin jarraituz, hizkuntzaren hautaketa ere aztertzea ezin bertzekotzat jotzen dut. Hizkuntzaren hautaketa nola ematen den ulertzeko Xabier Erizeren sailkapenaz baliatuko gara, horrela, hiru irizpide sailkatu zituen, irizpide soziologikoa, irizpide psikosoziala eta irizpide antropologikoa. Irizpide soziologikoaren arabera, hemen eremuak hartuko ditugu kontuan, hala nola, jende taldeak eremu batean edo bertzean ze hizkuntza aukeratzen duen. Gure ikergaira hurbilduz, gazteak hartuko ditugu kontuan eta irizpide soziologikoan eskolak garrantzia du baina are gehiago lagun koadrilak. Koadrila batean euskaraz egiten badute, bertako kideen harremanak euskaraz izango dira. Irizpide psikosoziala motibazioarekin erlazio zuzena du eta bertan hiru faktore azpimarratzen ditu Erizek: *“hiztunaren gaitasuna hizkuntza batean zein bestean hitz egiteko; talde sozialak berarengandik espero duen hizkuntza; solaskidearen hizkuntza”*. Eta azkenik, irizpide antropologikoak: Ikuspegi antropolinguistikoak erkidegoan kultur eta hizkuntza balioen erkidego partaidetza sentimenduen ikuspuntutik aztertzen du hizkuntzaren hautaketa. Baina zer da kultur eta hizkuntza balioen erkidego hori? Alde batetik, sentimendu eta balio jakin batzuenetan oinarritzen den gizarte egitura dela esan dezakegu. Eta bestetik, gizarte egitura hori, koherentzia emango dion kultur eta balioen multzoa dela. Biak elkartuta daude: gizarte bat ezin da bizi sinbolo aparaturok gabe eta aparatu horretan garrantzi berezia izango dute balioek. Izan ere, balio horiek zeregin hirukoitza betetzen dute: gizartearen arau edo erduei koherentzia ematen diete, pertsonen batasun psikikoa bermatzen dute eta gizarte integrazioari edo adostasunari oinarria ematen diote.

Euskara aztertzen ari garen eremuan ia gehiengoak ikasten du euskara, baina ze motibazio edo helbururekin ikasten du? Interesgarria da hemen Xabier Erizen bereizketa aipatzea. Alde batetik motibazio instrumentala dago, non pertsonak euskara ikasten duten eskolan erabiltzeko, lanean erabiltzeko, lana lortzeko... eta bertze aldetik, motibazioa integratzailea, hemen euskara egunerokotasunean erabiltzen da, ohitura dago euskara ikasteko beraz, honek erraztasun bat sortzen du. Integratze linguistiko bat lortzen da azken motibazio honi esker.

7.Euskararekiko jarrerak

2011.urtean Nafarroa mendi aldeko azterketa linguistiko bat egin zen, eta bertan biztanleen jarrerak izan ziren aztergai. Jarrera horiek zein diren aztertuko ditugu, gure errealitatea ezagutzen lagunduko digutelako.

Gehienek euskara etxeko eta esparru pribatuarekin lotzen dute, lan munduan presentzia handirik ez duela onartuz. Administrazioan salbu, horregatik esparru publikotik pribaturako saltoan euskararen egoera berdina ez dela antzematen dute, eta zerbait egin behar dela pentsatu.

Honekin lotuta, gehienek pentsatu dute euskaraz ez dela beharrezko hizkuntza, herri txikietan indar gehiago duena baino ezinbertzekotzat ez dute jotzen. Edozein lekutara gaztelaniarekin joan zaitezkelako, euskararekin ordea ez.

Askok onartu dute nahiz eta bi pertsonak euskaraz dakitela jakin gaztelaniaz mintzo direla eta hau ohitura kontua dela erraten dute. Nahiz eta saiatu euskaraz egiten hagitz artifizialak sentitzen omen direla, ez zaiela batere naturala suertatzen.

Euskara eta gaztelaniaren erabileraren bereizketan elkarriketatuek diote euskara goxotasunarekin lotzen dutela. Beraz, elkarriketa gaia gustokoa eta goxoa bada euskaraz egin ohi dute, elkarriketa berotu eta tonua igoz gero gaztelaniara jotzeko joera erakusten dute.

Euskararen interesa eta kontzientzazioari dagokionez, gutxi dagoela pentsatzen dute. Jendeak ez du interesik azaltzen eta horren adibide euskaltegietan ibili ohi den jende kopuru eskasa aipatzen dute. Euskarak orokorrean balio gutxi duela erraten dute.

Euskaraz irakurtzeko ohitura gutxi dago, normalean albisteak, literatura... erdaraz irakurtzeko ohitura dutela onartzen dute. Honek azkenean, elkarriketak euskaraz ez egitera behartzen ditu. Tebistan ere, eskaintza ez da oso zabala eta ETB da euskaraz ikusteko aukera bakarra. Etxean haurrak dituzten familiek ETB3 ikusteko joera dute batez ere marrazki bizidunak azaltzen direlako. ETB1 batez ere berriak eta honelakoak ikusteko erabili ohi dituzte, baina ez da kate ikusiena.

Bukatzeko, euskara beraien identitatearen zati kontsideratzen dutela erraten dute, beraien kulturaren zati bezala ikusten dute. Euskal kulturaren funtsezko oinarritzat jotzen dute. (Nafarroako mendi aldeko euskaldunen alfabetatze jarrerak, joerak eta hautemateak 2011. Bortzirietako euskara mankomunitatea, 2011)

8.Haurtzarotik nerabezarora

“Euskaraz bizi” izeneko elkarteak honen inguruko hausnarketa bat egin du eta gu honetaz baliatuko gara aipatutako faktore horiek identifikatzeko. Helduen protagonismoa galtzen joaten da, helduek eta irakasleek jadanik ez dute haurtzaroko erreferentzia berdina suposatzen. Nahiz eta eskolan behin eta berriz euskararen erabilpenaren garrantzia azpimarratu, ez dago nerabeen lehentasunen artean. Honetaz gain, internetek, telebistak... eragin handia du gaztetxoengan. Gehien ikusten diren telebista kanalak erdaldunak dira eta bertan agertzen diren beraien “heroiak” ere erdaldunak izan ohi dira. Ikusten dituzten filmak, telesailak, telebista programak... erdaraz izan ohi dira eta honek guk uste baino eragin handiagoa du, azken batean hauek imitatzen saiatzen baitira.

Hau gutxi balitz, erraz amore eman ohi dugu horrelako aipuak erabiliz: “Helduagok egiten direnean berriro ere euskarari helduko diote...” Erraz justifikatu ohi dugu euskara ez erabiltzea. Harremanak egiterako orduan ere gaztelania zein frantsesa erabili ohi dute nerabeek.

9.Euskararen atzerakadarekin zerikusia duten faktoreak

Hainbat faktore daude euskara atzerakada suposatu dutenak, horien artean hirien sorrera, Kanpoarekiko komunikazioa eta euskal nobleziaren Gaztelarekiko lotura.

Hirien sorrerarekin administrazioarekiko harremanak erromantzez egiten ziren, honekin batera ekintza judizial, ekonomikoak... erromantzez egiten ziren eta honek euskarari kalte egiten zion, esparru honetan ez baitzuen tokirik. Kanpoarekiko komunikazioari dagokionez, euskaldunak arrantzara joaten zirenean adibidez, ez ziren bertze herrialdekoekin euskaraz mintzatzen, eta hortaz bertze hizkuntza batzuetan aritzera behartuak zeuden. Bukatzeko, euskal nobleziaren Gaztelarekiko loturan handi nahi sozial eta ekonomikoa zuten hainbat familiak, hala nola, Haroko leinuak, Mendoza, Arana eta Gebara. Botere handia zuten herri xehearekiko eta hauentzako miresgarria zen hauen hizkuntza. Horrela, kontzientziarik izan gabe euskara “mespretxatzen” hasi ziren, hori ez baitzen goi klasearen hizkuntza. Zentzu horretan, nekazal eremuko pertsonak bazterturik ikusi zuten bere burua, euskara bakarrik menperatzen zutelako. (Hizkuntza Borroka Euskal Herrian. Siadeco).

10.Hezkuntza

Ikerketa honetan ezin genuen aipatu gabe utzi hezkuntzak duen garrantzia, euskararen erabilera pisu handiko faktorea dugulako. Bortzirietan bizi den errealitatea aztertuko dugu ikastetxeak eta eskaintzen diren ereduak kontuan hartuz.

Arantzan ikastetxe bakarra dugu, Arantzako Ikastetxe Publikoa bertan haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren lehen zikloa eskaintzen dira, denak D ereduan.

Beran eskaintza zabalagoa da, 4 ikastetxe ezberdin ditugu. Alde batetik, Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoa bertan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza D ereduan eskaintzen dira. Bigarrenik, Labiaga ikastola dugu non haur hezkuntza, lehen hezkuntza

eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren lehenengo zikloa D ereduaren eskaintzen diren. Bertze aldetik, Jesusen Bihotza ikastetxea dago, hemen haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen dira A zein B ereduaren. Eta bukatzeko Toki Ona institutua derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta heziketa zikloak eskaintzen dituena, hauek A, B zein D ereduaren.

Etxalarren eskola bakarra dugu, Landagain Ikastetxe Publikoa haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen dituena D ereduaren.

Lesakan bi ikastetxe daude; alde batetik, Irain Ikastetxe Publikoa haur hezkuntza eta lehen hezkuntza D ereduaren dituena eta bertze aldetik, Tantirumairu ikastola haur hezkuntza eta lehen hezkuntza ere D ereduaren eskaintzen dituena.

Bukatzeko, azken herria Igantzi dugu non Igantziko Ikastetxe Publikoa dagoen, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza D ereduaren dituenak.

Beraz, ikus dezakegu ikastetxe guztietan D ereduaren eskaintzen dela Berako Jesusen Bihotza ikastetxean izan ezik, bertan A ereduaren eta B ereduaren daude. Hortaz, erdarazko hautua egiten duten gurasoek derrigorrezko eskola honetara eramane beharko dute.

Datuez baliatuko gara ikusteko zein den Bortzirietan bizi den egoera eta zein izan den eman den bilakaera. Hiru ataletan ikusiko dugu, lehenengo haur hezkuntza, gero lehen hezkuntza, gero derrigorrezko bigarren hezkuntza eta azkenik unibertsitateko arloa.

10.1.Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari dagokionez, hurrengo hauek dira Bortziri mailan bildu ahal izan ditudan datuak.

XI.Taula: 1996-2012. urtera Bortzirietako Haur Hezkuntzako ereduaren bilakaera ehunekotan.

	A	B	D
<i>1996-1997</i>	0.0	15.8	84.1
<i>1997-1998</i>	0.0	14.1	85.9
<i>1998-1999</i>	2.3	12.3	85.4
<i>1999-2000</i>	3.3	9.3	87.4
<i>2000-2001</i>	3.4	7.9	88.7
<i>2001-2002</i>	2.4	10.0	87.6
<i>2002-2003</i>	3.4	12.6	84.0
<i>2003-2004</i>	4.9	11.7	83.4

<i>2004-2005</i>	3.5	11.4	85.1
<i>2005-2006</i>	2.9	11.2	85.9
<i>2006-2007</i>	3.3	9.9	86.8
<i>2007-2008</i>	1.5	7.3	91.2
<i>2008-2009</i>	0.6	8.4	91.0
<i>2009-2010</i>	0.3	8.5	91.2
<i>2010-2011</i>	1.8	7.1	91.1
<i>2011-2012</i>	2.2	4.3	93.5

Iturria: Ikastereduen bilakaera Bortzirietako ikastetxeetan 2011-2012 ikasturtea. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Patri Arburua Etxeberria, 2012.

D ereduaren indarra nagusi da, batez ere 2007.urteetik aurrera %90etik gora mantetzen delako. D ereduaren irabaziak Bren galera suposatzen du. A eta B ereduak ikasteko aukera bakarria Jesusen Bihotza Ikastetxea dugu. A ereduak gora behera ugariak pairatu ditu 1998.urteetik 2003.urtera badirudi gorantz doala portzentaia, baina hortik aurrera indarra galduz doa. B ereduak aldiz, nahiko modu argi batean beherantz doa urteetik urtera.

10.2. Lehen Hezkuntza

Behin Haur Hezkuntza egoera aztertu dugula, orain Lehen Hezkuntzako errealitatea ezagutuko dugu.

XII.Taula: 1996-2012.urtera Bortzirietako Lehen Hezkuntzako ereduaren bilakaera ehunekotan.

	A	B	D
<i>1996-1997</i>	4.6	15.7	79.6
<i>1997-1998</i>	2.1	14.5	83.4
<i>1998-1999</i>	0.7	13.5	85.7
<i>1999-2000</i>	1.2	13.5	85.3
<i>2000-2001</i>	1.3	12.2	86.5
<i>2001-2002</i>	2.6	11.7	85.7
<i>2002-2003</i>	3.0	11.0	86.0

<i>2003-2004</i>	2.8	9.5	87.7
<i>2004-2005</i>	4.1	10.4	85.5
<i>2005-2006</i>	3.8	8.7	87.5
<i>2006-2007</i>	2.7	9.2	88.1
<i>2007-2008</i>	3.6	9.8	86.6
<i>2008-2009</i>	2.9	10.5	86.6
<i>2009-2010</i>	3.1	10.1	86.7
<i>2010-2011</i>	2.0	9.8	88.2
<i>2011-2012</i>	2.0	10.1	87.9

Iturria: Ikastereduen bilakaera Bortzirietako ikastetxeetan 2011-2012 ikasturtea. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Patri Arburua Etxeberria, 2012.

D ereduaren gorakuntza nabaria da, baina haur hezkuntzako datuekin alderatuz gero, ikus dezakegu lehen hezkuntza ez dela %90era iristen. Izan daiteke, hemendik urte batzuetara Haur Hezkuntzako ehunekoak Lehen Hezkuntzara iristea, hori hemendik urte batzuetara ikusteko aukera izango dugu. A ereduak nahiko gorabehera ditu, ezin dezakegu erran goraka edo beherakadarik izan duenik, urtetik urtera aldatuz joan baita. B ereduaren errango nuke beheranzko joera bat ematen ari dela, D ereduak indarra hartzen duen bitartean.

10.3.Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Orain Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako datuak ikusiko ditugu eta aukera izango dugu Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzako errealitatearekin alderatzeko.

XIII.Taula: 1996-2012.urtera Bortzirietako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bilakaeran ehunekotan.

	A	B	D
<i>1996-1997</i>	34.5	3.9	61.5
<i>1997-1998</i>	29.7	5.9	64.4
<i>1998-1999</i>	24.4	8.2	67.3
<i>1999-2000</i>	14.6	10.8	74.6

2000-2001	6.2	12.0	81.8
2001-2002	5.2	10.7	84.1
2002-2003	1.6	10.8	87.4
2003-2004	2.8	10.8	86.4
2004-2005	3.3	11.9	84.8
2005-2006	5.0	12.4	82.6
2006-2007	7.4	11.6	81.0
2007-2008	4.8	12.8	82.4
2008-2009	7.0	12.4	80.6
2009-2010	5.2	9.7	85.1
2010-2011	7.3	9.5	83.2
2011-2012	6.3	11.8	81.9

Iturria: Ikastereduen bilakaera Bortzirietako ikastetxeetan 2011-2012 ikasturtea. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Patri Arburua Etxeberria, 2012.

D ereduan 2002. urtean jo zuen goia, nahiz eta gero %80an mantendu den gora behera handiak jasan gabe. Nabaria da A ereduak izan duen beheranzko joera, 1996.urteetik 2012.urtera %34.5etik %6.3ra jaitsi baita, hau da, 28.2 puntu. B ereduan aldiz, goranzko joera eman da, eta badirudi indar pixka bat hartzen ari dela. Daturik txikiena 1996.urtekoak ditugu eta altuena ordea, 2005.urtekoa.

10.4.Unibertsitatea

Atal honetan Bortzirietako gazteen hizkuntza gaitasunaz, hautatutako unibertsitateaz, hiriaz, hizkuntza ereduaz... arituko gara. Jakina da Bortzirietako gazte guztiak ez direla unibertsitatean egon baina errealitateara hurbilpen bat egiteko baliozkoak zaizkigu datu hauek.

Bortzirietako gazteen gehiengoa hobeki moldatzen da euskaraz hitz egiten (%76.9), gutxiengoa erdaraz soilik (%5.4) eta bi hizkuntzetan modu berdinean moldatzen direnak (%17.7). (Bortzirietako euskara mankomunitatea, 2011)

Irakurtzerako garaian ere datu berdintsuak ditugu, nahiz eta bi hizkuntzetan moldatzen direnen ehunekoa igotzen den. Gaztelera hobeki irakurtzen dutenak %6.9 dira, euskara hutsean %72.3 eta azkenik, bi hizkuntzetan moldatzen direnak %20.8 dira. (Bortzirietako euskara mankomunitatea, 2011)

Ikasterako orduan ere gauza bera gertatzen da, gehiengoak euskaraz ikastea nahiago du (%73.8), gazteleraz ikasteko erraztasuna dutenak gutxiengoa dira (%6.2) eta azkenik, bi hizkuntzetan moldatzen direnak bortzen bat dira (%20). (Bortzirietako euskara mankomunitatea, 2011)

Batxilergoa amaitu eta unibertsitatean sartzen direnak %54a dira, erdia baino pixka bat gehiago (Bortzirietako euskara mankomunitatea, 2007)). Hauek zein unibertsitatera joaten diren aztertuko dugu:

XIV.Taula: Bortzirietako gazteek aukeratzen dituzten unibertsitateak beraien ikasketako egiteko ehunekotan, 2007. urtea.

<i>Unibertsitatea</i>	<i>%</i>
<i>NUP-UPNA</i>	8.8
<i>Universidad de Navarra</i>	7.2
<i>EHU-UPV Gasteiz</i>	18.4
<i>EHU-UPV Donostia</i>	32.0
<i>EHU-UPV Bilbo</i>	11.2
<i>Deustu Bizkaia</i>	0.8
<i>Deustu Donostia</i>	4.8
<i>Mondragon unibertsitatea</i>	9.6
<i>Besteak</i>	7.2

Iturria: Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan, 2007. Aztiker. Andoain, 2007.

Ikasketak erdaraz egin dituzten eta A eredia aukeratu dituzten gazteen artean, ohikoagoa da NUP edo Universidad de Navarrara joatea. D ereduan ikasi dutenek ordea, joera gutxiago dute bi unibertsitate hauetara joateko.

Datu hauen arabera Bortzirietako gazteen gehiengoa Donostiako EHU-ko unibertsitatera doa, jarraian Gasteiz eta Bilboko EHUko unibertsitatera, gero Mondragon unibertsitatera eta azken postuetan NUP eta Universidad de Navarra ditugu.

Kontuan izan behar dugu aipatutako azken bi unibertsitateetan ezin dela euskaraz ikasi, NUP-eko magisteritza eskolan salbu.

XV.Taula: Bortzirietako gazteek aukeratzen duten herrialdea beraien ikasketak egiteko ehunekotan, 2007.

<i>Herrialdea</i>	<i>%</i>
<i>Nafarroa</i>	16.0
<i>Gipuzkoa</i>	46.4
<i>Araba</i>	18.4
<i>Bizkaia</i>	12.0
<i>Euskal Herriatik kanpo</i>	7.2

Iturria: Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan, 2007. Aztiker. Andoain, 2007.

Azken bi taulak uztarturik ikus dezakegu nola ia ikasleen erdia Gipuzkoara joaten den. Kontuan hartuta Bortziriak Nafarroan dagoela, %16a bakarrik joaten da bertara ikastera, nahiko ehuneko txikia da.

Gazteen ikasketetan euskarak ze garrantzia duen aztertuko dugu jarraian. Beraiek aukeratutako ikasketetan euskara eskaintza handienak dituen tokira joan ote diren ikusiko dugu. %68.3k onartzen dute beraien ikasketak euskarazko eskaintza handiena duten unibertsitatera joan direla. Hala ere, hurrengo taulan ikusiko dugun bezala, herriz herriko datuak ezberdinak dira.

XVI.Taula: Bortzirietako gazteentzat ikasgaiak euskaraz egiteko aukera izatea pisuzko arrazoia ote den ehunekotan herriz herri, 2007.

<i>Herria</i>	<i>Ez</i>	<i>Bai, baina ez zen arrazoi nagusia</i>	<i>Bai</i>
<i>Arantza</i>	0.0	27.3	72.7
<i>Bera</i>	10.8	54.1	35.1
<i>Etxalar</i>	0.0	33.3	66.7
<i>Igantzi</i>	33.3	0.0	66.7
<i>Arantza</i>	4.0	32.0	64.0

Iturria: Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan, 2007. Aztiker. Andoain, 2007.

Orokorrean antzematen da euskarak garrantzia handia duela ikasketak non egin erabakitzeke garaian. Hala ere, Beran indar gutxiago du aukera horrek, gehienek kontuan hartzen dute baina bertze arrazoi batzuk garrantzitsuagozat jotzen dituzte. Gutxi dira hizkuntza kontuan hartzen ez duten pertsonak, Etxalar eta Arantzan erraterako ez da horrelako kasurik suertatu.

XVII.Taula: Bortzirietako gazteei zein hizkuntzatan gustatuko litzaieke ikatea unibertsitatean ehunekotan, 2007.

guztia euskaraz	69.2
gehiena euskaraz	13.1
bietan berdin	12.3
gehiena gaztelera	3.1
guztia gaztelera	1.5
beste hizkuntzetan	0.8

Iturria: Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan, 2007. Aztiker. Andoain, 2007.

Datu hauek lotura zuzena dute gazteek edukitako ikaskuntza ereduarekin, D ereduko gehienak guztia euskaraz ikasi nahiko lukete. ehunekotik altuena guztia euskaraz ikasteko aukerak du (%69.2), ondotik gehiena euskaraz ikasteak (%13.1), jarraian bietan berdin (%12.3) eta azkenik, indar gutxien dituzten aukerak gehiena gaztelera (%3.1), guztia gaztelera (%1.5) eta beste hizkuntzetan (%0.8) dira. Beraz, euskarazko ikaskuntzak garrantzi handia du Bortzirietako gazteen artean.

11.Sare sozialak eta nerabeak

Gaur egun teknologia berriek pisu handia dute, batez ere gazteengan. Horregatik garrantzitsua da eremu hau aztertzea. Ze hizkuntza erabiltzen dute gure gazteok sare sozialetan? Pertsona berarekin aurrez-aurre eta pantaila baten atzetik hizkuntza bera erabiltzen dute? Ikerketa honetan galdera hauei erantzuna bilatzen saiatuko gara.

Gazteentzat sare sozialak komunikatzeko tresna erraza da.Dohainekoak dira; argazkiak, mezuak, loturak... momentuan partekatzeke aukera ematen dute. Soziolinguistika klasterrak 2013. urtean Urtxintxa eta Emunekin egindako ikerketa batean sare sozialak gazteen komunikazio kanal indartsuak direla ondorioztatu zuten. Gehien erabiltzen dituzten sare sozialak twitter, tuenti eta facebook izanik.

Euskal Herrian arlo honetan egin diren ikerketa gehienek sare sozialetan euskararen presentzia gazteengan txikia dela baieztatzen dute. Horren adibide dugu "Aztertutako nerabeek interneteko sare sozialen bitartez dituzten euren arteko harreman

informaletan, orokorrean oso euskara gutxi erabiltzen dute. Harreman gehiengo handia gaztelaniaz izaten da" (Soziolinguistika klusterra: 2014, 24.orr.)

Ikerketa berean bertze ondorio interesgarri bat aipatzea gustatuko litzaidake. Nerabeek euskarazko espresioak erabiltzen dituzte funtzio sinboliko moduan. Hau da, momentu puntualetan egindako esaldiak, hala nola, "zorionak!", "kaixo", "agur"... "Euskararen erabilera zoriontzeko, eskerrak emateko, agurtzeko eta maitasunezko mezuak adierazteko xedea duten mezuetan eman da gehien bat. Sarritan euskarazko formula estandarrek erabili dira horretarako (eskerrik asko, maite zaitut, zorionak...). Honek euskararen erabilerak kasu hauetan funtzio sinbolikoa betetzen dutela pentsatzera garamatza." (Soziolinguistika klusterra: 2011, 157.orr.)

Europa mailako hizkuntza gutxituekin gure egoera alderatzen badugu, gure kasua berezia dela erran genezake. Mikel Zalbide adituak erraten duenez euskaraz dakiten nerabeen profil linguistikoa aldatzen ari da. Euskara bigarren hizkuntzatzat duten nerabeen portzentaiak gora egin du azken urteetan. Hau ordea, ez da Europako bertze hizkuntza gutxituekin gertatzen (Mikel Zalbide, 2011).

Beraz, gure marko teorikoan sare sozialetan nerabeen artean euskararen presentzia nahiko txikia dela ondorioztatu dezakegu, azken ikerketen emaitzak ikusiz. Hala ere, Bortzirietako egoera zein den ezagutzeko aukera izanen dugu azterketa honen bidez.

12. Helburuak

Lan honen bitartez, hurrengo helburuak beteko ditugu.

Helburu nagusia:

- Bortzirietako gaztetxon egunerokotasunean euskararen presentzia neurtzea.

Bigarren mailako helburua:

- Sexu/generoen artean euskararen erabileran joera ezberdinik.
- Aurrez-aurreko harreman eta sare sozialetan euskararen erabileran aldaketarik dagoen identifikatzea.

13. Metodologia

Orain arte egin diren ikerketak oinarri moduan hartu ditugu, baina gure ikerketaren galderak erantzuteko informazio gehiago behar dugu. Gure helburuei erreparatuz metodologia kuantitatiboa dugu egokiena. Metodo kuantitatiboak helburu bikoitza baitu, alde batetik, deskribatzea eta bertze aldetik, azaltzea, eta hau neurtuz lortu dezakegu. Azken batean, metodologia kuantitatiboak gertaera sozialak neurtzeko erabiltzen ditugu. Metodologia kuantitatiboaren barruan inkesten teknika erabili dut. Nire nahia ahalik eta nerabe gehiengoarengana ailegatzea da eta horretarako inkesta da modurik aproposena.


Nire ikerketan parte hartu duten gaztetxoekiko profila ondorengoa da: Bortzirietako 12-16 urte bitarteko mutil eta neskatikoak. Hauengana ailegatzeko inguruko ikastetxeen laguntza izan dut. Bortzirietan DBH eskaintzen duten hiru ikastetxe ditugu: Arantzako Eskola, Toki Ona institutua eta Labiaga Ikastola. Hiru ikastetxeetara eraman nituen inkestak eta gelaz-gela nire ikerketaren berri eman nien ikasleei. Beraien laguntza ezinbertzekoa nuela adierazi nien eta guztiek parte hartu dute. Horrela bada, guztira 312 inkesta egin nituen.

Inkesta hauek nik diseinatu ditut, helburuei erreparatuz beti ere. Galderak modu neurgarri batean formulatu ditut geroko interpretazioa errazteko.

Behin inkesta guztiak bildu nituenean, datuak SPSS programan sartu nituen. Bertan estatistiko ezberdinak lortu nituen eta hauen interpretazioa egin nuen. Bildutako informazio guztiarekin, hau da; marko teorikoarekin, helburuak eta interpretazioak kontuan hartuz, ondorio interesgarri batzuetara ailegatu naiz.

14. Datuen interpretazioa:


II. Grafikoa. Nerabeen ama hizkuntza ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)



Iturria: Eneritz Rekartek egin, 2015. urtean.

Inkesta egin duten gaztetxoekiko arteko %50aren ama hizkuntza euskara da, %31rena euskara eta gaztelania, eta azkenik, %19arena gaztelania. Beraz, erran genezake Bortzirietako gaztetxoekiko %81akn etxetik jaso duela euskara.



III.Grafikoa. Nerabeek egunerokotasunaen gehien erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)



Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean

Egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntzaz galdetu dugunean % 60ak euskaraz egiten duela aitortu du, %30ak euskara zein gaztelania, hau da, biak maila berean, eta azkenik, %10ak batez ere gaztelania erabiltzen duela onartu du. Hala ere, hau gaztetxoek duten pertzepzioa bertzerik ez da, aurrerago ikusiko dugun moduan, bertze galdera batzuen bitartez sakonkiago aztertuko dugu galdera hau.

IV.Grafikoa. Nerabeek egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan, sexu-generoa kontuan hartuta. (1999-2002 jaiotakoak)




Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Behin datu orokorrak ditugula interesgarria da sexu-generoaren arabera datuak aztertzea. Grafikoari erreparatzen badiogu, egunerokotasunean euskararen presentzia handiena neskeen portzentaian ikusi dezakegu. Nesken kasuan euskararen erabilera

%64koa da eta mutilena ordea, %58. Egia da bi portzentaien arteko ezberdintasuna ez dela hagitz handia, hortaz, hurrengo grafikoan sexu-generoa aldagaia kontuan hartzeaz gain, adin-tartea ere aukeratuko dugu.

Grafiko honekin jarraituz, euskara zein gaztelania gehien erabiltzen duten hizkuntza izanik, bi sexu-generoen arteko aldea ez da handia, neskena %27 den bitartean, mutilena %32 da. Eta azkenik, gaztelania egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntzatzat onartzen duten neskak %9 dira, eta mutilak %10.


V.Grafikoa.Nerabeek egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan, adin tartean kontuan hartuta.



Iturria: Eneritz Rekartek eginak, 2015.urtean.


Euskara gehien erabiltzen duten hizkuntza ardatz hartuta, ikus dezakegu DBH1ekon portzentaia %51ekoa dela, DBH2koena %56, DBH3koena %67 eta azkenik, DBH4koena %67. Beraz, adinak gora egin ahala, egunerokotasunean euskararen presentziak gora egiteko joera duela erran genezake. Euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenen ehunekoa eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa ordea, jautsiz doa. Euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenak DBH1en %39 dira, DBH2n %33, DBH3n %27 eta azkenik, DBH4en %23. Eta bukatzeko, batez ere gaztelania erabiltzen duten ikasleen ehunekoak ikusiko ditugu, DBH1koak %12 dira, DBH2koak %11, DBH3koak %6 eta azkenik, DBH4koak %10. Beraz, euskararen presentzia gora doala nabarmen ikus dezakegu, euskara zein gaztelania modu berean erabiltzen dutenen ehunekoak ere behera egin du, eta bukatzeko, gaztelania batez ere erabiltzen dutenen portzentaia jautsi. Hala ere, azken hauen beherakada ez da oso nabarmena, oso gutxi egiten du behera urteen poderioz.

VI.Taula. Mutilek egunerokotasunean gehien erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan, adin tartean kontuan hartuta.



Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

VI.Taula: Neskek egunerokotasunen gehien erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan, adin tartea kontua hartuta.



Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Behin adin tartean aztertu ditugula aldagai berri bat txertatuko dugu: sexu-generoa. Bi grafiko ditugu honetarako, alde batetik, neskeen emaitzak ditugu eta bertze aldetik, mutilenak. Lehenengo nesken estatistiken interpretazioa egingo dugu, jarraian mutilena eta azkenik, bien arteko alderaketa egingen dugu.

Nesken grafikoa begiratzen badugu, ikus dezakegu hiru ardatzetan ez dagoela aldaera handirik. Euskara batez ere erabiltzen duten portzentaia hagitx gutxi aldatzen da, mantentzen dela erran genezake. Euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenen ehunekoak behera egiten du, DBH1en %23 dira, DBH2n %29, DBH3n %28 eta azkenik, %19. Hauek behera egiten duten bitartean, gaztelania gehien erabiltzen dutenen ehunekoak pixka bat gora egiten du, DBH1ekoak %8 dira, DBH2koak %9, DBH3koak %5 eta azkenik, DBH4koak %14. Beraz, euskara batez ere erabiltzen dutenen kopurua mantendu egiten da DBH1etik DBH4era, aldiz, gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak handituz joatean da urteak joan ahala.

Mutilen grafikoari dagokionez, egunerokotasunean euskararen presentziak gora egiten du urteekin. DBH1en %42 dira, DBH2n %50, DBH3n %68 eta azkenik, DBH4en %68. Euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenen ehunekoak jaitsiz doa, DBH1en %42, DBH2n %24, DBH3n %25 eta azkenik, DBH4en %26. Bukatzeko, gaztelaniaren presentzia jaitsiz doa, horrela DBH1en %16, DBH2n %16, DBH3n %7 eta DBH4en %6.

Ondorioz, nahiz eta orokorrean neskeen artean euskararen presentzia handiagoa izan, urtetik urtera ez da asko aldatzen, erabilera mantendu egiten da. Gainera, euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak txikituz doa, eta hutsune hori gaztelaniak hartzen du. Mutilen kasuan ordea, gaztetxoeren artean euskararen presentzia neskeena baino baxuagoa izan, denboraren poderioz euskarak lekua irabazten du, gaztelaniari kenduz.

XVIII.Taula. Eremuaren arabera nerabeek erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)

	Beti euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	Euskaraz zein gaztelaniaz	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	Beti gaztelaniaz
Ama	%40	%17	%6	%13	%24
Aita	%48	%11	%5	%14	%22
Anai-arrebak	%60	%17	%7	%8	%8
Koadrila	%54	%19	%17	%7	%3
Gelako	%64	%22	%8	%6	%0

lagunak					
Herriko dendaria	%64	%21	%7	%5	%5
Medikua	%13	%17	%19	%23	%28
Bizilaguna	%54	%17	%13	%6	%10
Udal langileak	%64	%15	%9	%4	%8

Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Ondorengo taula hau aztertzen badugu ikus dezakegu nerabeen egunerokotasunean euskarak pisu handia duela batez ere eskola eremuan, udalean, herriko dendari eta anai-arreben artean. Bertze bloke batean gurasoak, bizilagunak eta koadrilak sartuko genituzke, eta azken postuan nabarmen gainera, osasun zerbitzuak.

Eremu formalean euskararen presentzia handia da, hala nola, eskoleko eremuan beti edo ia beti euskaraz aritzen direnak %86a dira; herriko dendariekin %85a; udal langileekin %79a; eta azkenik, anai-arreben artean %77. Anai-arreben kasuan eskolak paper garrantzitsua bete du hauen arteko harremana euskaraz izateko.

Eremu informalean ordea, euskaraz aritzeko joera dutenen ehuneko txikiagoa da. Koadrilan beti edo ia beti euskaraz aritzen direnak %73a dira, bizilagunekin %71a, aitarekin %59a eta amarekin %57a.

Eta azkenik, beti edo ia beti osasun zerbitzuetan gaztelaniaz aritzen direnak %51a dira.

XIX.Taula. Baieztapenen adostasun maila ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)

Ikasleek beteriko inkestaren atal batean esaldi hauek zituzten eta esaldi hauekin ados zeuden edo ez adierazi behar zuten. Taula honetan ikus ditzakegu emaitzak:

	Ados	Ez ados
Errekreo garaian klase orduetan baino erdara gehiago entzuten dut	%56	%44
Txikia nintzenean gurasoek gehiago egiten zidaten euskaraz	%45	%55
Duela urte batzuk gehiago egiten nuen euskaraz	%22	%78
Gelako lagunekin gelan euskara gehiago erabiltzen dut, klasea bukatzean , ordea, erdaraz egiteko ohitura gehiago dugu	%25	%75
Aisialdian euskararen presentzia geroz eta txikiagoa da	%42	%58

Koadrilan oro har, euskaraz egiten dugu, nahiz eta lagun pare batek erdarara jotzeko joera duten	%66	%34
Ezinbertzekoada haur guztiek euskara ikastea	%78	%22
Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek askoz programazio gehiago izan beharko lukete euskaraz	%80	%20

Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Zortzi baieztapen ezberdin planteatu dizkiegu gaztetxoei eta hauek izan dira emaitzak. Badira hiru baieztapen ados eta ados ez daudenen artekoen kopurua nahiko antzekoa dena. "Errekreo garaian klase orduetan baino erdara gehiago entzuten dut", "Txikia nintzenean gurasoek gehiago egiten zidaten euskaraz" eta "Aisialdian euskararen presentzia geroa eta txikiagoa da". Esaldi hauetan ez dugu zer erran nahi handirik, kopuru beretsua lortu dugulako bi aldeetan.

Gehiengo ados dagoen esaldiak hurrengoak dira: "Koadrilan oro har, euskaraz egiten dugu, nahiz eta lagun pare batek erdarara jotzeko joera duen", "Ezin bertzekoa da hau guztiek euskara ikastea" eta "Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek askoz programazio gehiago izan beharko lukete euskaraz". Lehenengo esaldiaren adostasun maila %66koa da, bigarrenarena %78koa eta hirugarrenarena %80koa.

Taula honekin bukatzeko, gaztetxoek desadostasun maila hurrengo bi esaldietan izan da nabaria. "Duela urte batzuk gehiago egiten nuen euskaraz" eta "Gelako lagunekin gelan euskara gehiago erabiltzen dut, klasea bukatzean ordea, erdaraz egiteko ohitura gehiago dugu". Lehenengo esaldiarekin desadostauna %75ak erakutsi du, bigarrenakin %78ak.

XX.Taula. Nerabeek sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)

	Beti euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	Euskaraz zein gaztelaniaz	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	Beti gaztelaniaz
Iruzkina	%42	%26	%10	%7	%15
Txat-a	%49	%20	%17	%7	%7
Argitalpenak	%45	%21	%15	%7	%12
Argazkien deskribapena	%35	%27	%21	%6	%11

Sare sozialen konfigurazioa	%28	%7	%12	%15	%38
------------------------------------	-----	----	-----	-----	-----

Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Sare sozialetan euskararen presentzia zein den ezagutu nahi dugu taula honen bidez. Gaztetxoan %42ak euskaraz idazten ditu iruzkinak, %49ak txata euskaraz erabiltzen du, %45ak argitalpenak euskaraz egiten ditu, %35ak argazkien deskribapenak euskaraz idazten ditu, eta azkenik, sare sozialen konfigurazioak %28ak bakarrik du euskaraz. Beraz, nahiz eta euskaraz presentzia izan sare sozialetan, kasu bakar batean ere ez du %50a gainditzen.

Euskaraz gehien bat iruzkinak, txata eta argitalpenak egiten dituzte. Sare sozialen konfigurazioa ordea, gehiengoak gaztelaniaz du, %38ak hain zuzen ere.

XXI.Taula. Whatsapp-ean nerabeek erabiltzen duten hizkuntza ehunekotan (1999-2002 jaiotakoak)

	Beti euskaraz	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	Euskaraz zein gaztelaniaz	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	Beti gaztelaniaz
Ama	%47	%5	%4	%7	%37
Aita	%48	%4	%3	%10	%35
Anai-arrebak	%56	%22	%4	%5	%13
Koadrila	%51	%27	%12	%6	%4
Gelako lagunak	%62	%22	%8	%6	%2

Iturria: Eneritz Rekartek egina, 2015.urtean.

Whatssapa nahiko fenomeno berria dugu gure artean. Taula honen bitartez aurrez-aurreko harremanetan erabilitako hizkuntza eta whatsapp-erabiltzen dena, bera ote den jakin nahi dugu.

Datuak alderatzen baditugu, whatsapp-ean euskaraz pixka bat behera egiten duela ikus dezakegu. Amarekin beti edo ia beti aurrez-aurreko harremanetan euskaraz aritzen direnak %57a diren bitartean, whatsapp-erabiltzen %52a dira; aitarekin aurrez-aurre %59a eta whatsapp-erabiltzen %52; anai-arreben artean aurrez-aurre %77a eta whatsapp-erabiltzen %78a; Koadrilan aurrez-aurre %73a eta whatsapp-erabiltzen %78; azkenik, gelako lagunekin aurrez-aurre %86a eta whatsapp-erabiltzen %84a. Hala ere, koadrilaren kasua ezberdina dela erranen

genuke, idatziz komunikatzerako orduan euskara gehiago erabiltzen dute ahozko komunikazioan baino. Anai-arreben kasuan ordea, ehunekoak mantendu egin dira.

15.Ondorioak

Bortzirietako gaztetxoan artean hizkuntza nagusia euskara dugu, gehiengoak etxetik jaso du hizkuntza baina bada eskolan ikasi duenik ere. Nerabeen erdian ama hizkuntza euskara da, eta euskara eta gaztelania ama hizkuntzatzat dutenak ia herena dira. Hortaz, inoiz ere etxean euskararik aditu ez duten gaztetxoak gutxiengoa dira. Hizkuntzaa jakiteaz gain, gehien erabiltzen den hizkuntza euskara da, %60ak aitortzen du bere egunerokotasunean gehien erabiltzen duen hizkuntza euskara dela. Hala ere, badugu portzentaia garrantzitsu bat euskara hizkuntza nagusitzat ez dutenena.

Eremuen arabera hizkuntzaren erabilera aztertzen baldin badugu, hiru bloke garrantzitsu azpimarratu ditzakegu. Alde batetik, eremu formalean urteen poderioz euskarak indar handia irabazi du, batez ere eskola eremuan. Herri mailan administrazio edo udal langileetat galdetu dugunean ere, datuek erakusten digute euskaraz aritzeko joera nahiko handia dagoela. Beraz, eremu formalean euskara nahiko errotuta dagoela erran genezake.

Eremu formaletik eremu informaletan jauzi egiten badugu, datuek behera egiten dutela ikus dezakegu. Adibide gisara, ikus dezakegu, nerabeek gelako lagunekin (eskola orduetan) euskara gehiago erabiltzen dutela beraien lagun koadrilarekin (aisialdi tenorea) baino. Etxean ere askok ez dute euskaraz egiten, gurasoekin euskaraz egiten dutenak erdia baino pixka bat gehiago dira eta. Beraz, eremu informalean hutsune bat dagoela erran genezake, eremu formalean euskara gehiago erabiltzea lortu baitugu. Hala ere, ez nuke aipatu gabe utzi nahi anai-arreben arteko komunikatzeko hizkuntza nagusia euskara dela. Kasu honetan, eskolak eragin handia izan du, eskolan elkarrekin euskaraz egin izan dutenez, hori kasu gehienetan mantendu egin da.

Gaiarekin jarraituz, Bortzirietan dugun arazoetako bat nabarmen nagusitu zaigu ikerketa honetan. Nerabeek aitortu dute medikuarekin oso gutxik euskaraz egiten dutela, osasun zerbitzua ez dugulako nahi bezain euskaldundua. Sektore honetan lortu ditugu euskaraz aritzen diren portzentaia baxuenak.

Gure bigarren mailako helburuetako bat sexu/generoaren azterketan zentratu dugu. Neska eta mutilen artean joera ezberdinak nabarmendu ditugu. Estatistiketan ikusi dugun moduan adinarekin poderioz datuak aldatuz doaz. Hau da, hasieran batean neskek joera gehiago dute euskaraz aritzeko, adinak gora egiten duen moduan, erabilerak ere gora egiten duela ikusi dugu, nahiz eta zenbakiak anitz ez igo. Mutilen kasua ordea ezberdina da, lehenengo urteetan, hau da 12 urte inguru dituztenean euskararen erabilera nahiko baxua da. Adinak gora egiten duen heinean erabilerak ere gora egiten du, eta zenbaki hagitik adierazgarriekin gainera. Nesken kasuan goraka nahiko mantsoa den arren, mutilengan zenbakiak azkarrago egiten dute gora.

Sare sozialetan euskararen pisua zein den ezagutzea lortu dugu azterketa honen bitartez. Euskarak sare sozialetan presentzia duela erran genezake, baina nahiko gutxi, ez baita %50era ailegaten beti euskaraz aritzen diren nerabeen ehunekoa. Gainera, adierazgarria da ikustea nahiz eta txata, argitalpenak, iruzkinak... beti euskaraz egiten duten nerabeak izan, sare sozialen konfigurazioa gaztelania hutsean dutenik badela. Azken batean, ez diote garrantzirik ematen erabiltzen ari diren tresnaren hizkuntza zein den.

Ondorioekin bukatzeko, alderaketa bat egin nahi izan dugu aurrez-aurreko harremanetan erabiltzen den hizkuntza eta whatssapean erabiltzen den hizkuntzaren artean. Nahiz eta portzentaiak ez diren anitz aldatu, aita, ama eta gelako lagunekin, aurrez-aurre euskara gehiago erabiltzen dute whatssapean baino. Gurasoekin gaztelania gehiago erabiltzen dute, ziurrenik guraso batzuk gaztelaniaz idazteko erraztasun gehiago izanen dutelako. Aldiz, koadrilan joera gehiago dute idatzizko komunikazioa euskaraz egiteko aurrez-aurrekoa baino. Anai-arreben kasuan portzentaiak mantendu direla erran genezake.

16. Bibliografia:

- AMONARRIZ, Kike (2002) *Euskara zuzenena erabiltzeagatik, batere komunikatiboa ez den hizkera bat erabiltzen da* in *BAT Aldizkaria*. 42.zenbakia.
- ERIZE, Xabier (1997) Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza. Iruña, Nafarroako Gobernu.
- FISHMAN, Joshua (1988) *Sociología del lenguaje*. Madrid.
- GROS I LLADÓS, Miquel (2007). *Recuperación del euskera en Navarra*. Bilbao.
- HAINBAT EGILE (2012) "Hizkuntzen kale erabileraren VI.neurketa, 2011" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 84.
- HAINBAT EGILE (2007) "Kale neurketaren VI.neurketa, 2006. Emaitzak, azterketak, gogoetak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 64.
- HAINBAT EGILEA (2013) "V. Inkesta soziolinguistikoa, 2011". Vitoria-Gasteiz.
- HERNANDEZ, Jone Miren (2005) *Soziologiazko Euskal Koadernoak/Cuadernos sociológicas vascos. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Gasteiz.
- Ikastereduen bilakaeran Bortzirietako ikastetxeetan 2011-2012 ikasturtea. Bortzirietako euskara mankomunitatea: 2012.
- *Kale erabileraren neurketa Bortziriak, 2011*. Bortzirietako euskara mankomunitatea: 2011

- MARTINEZ DE LUNA, I. Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara.
- *Nafarroako mendi aldeko euskaldunen alfabetatze jarrerak, joerak eta hautemateak 2011*. Bortzirietako euskara mankomunitatea: 2011.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José Maria (1981) "La Navarra Cantábrica. Estudio antropolingüístico de una Comunidad euskaldun" in *Fontes Linguae Vasconum*, 37.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2011). *Nerabeak , interneteko sare sozialak eta euskara*.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2013). *Gazteak, sare sozialak eta hizkuntza kudeaketa*.
- Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan. Bortzirietako euskara mankomunitatea: 2007.
- ZALBIDE, Mikel (2011). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia. Jagon Saila
- ZELAIETA, Edu (2009). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Euskaltzaindia.